

ZUMAIA / Ipuin-kontaketa saioak antolatu ditu liburutegiak Gabonen atarian

DV. Gabon garaia literaturarekin edo, kasu honetan bezala, ipuinekin gozatzeko une aparta izan daiteke. Hori gogoan izanda, Zumaiako udal liburutegiko arduradunek ipuin-kontaketa saio bereziak antolatu dituzte datozen asteetarako. Saio hauetatik lehena astearte honetan izango da arratsaldeko 5:30ean Foronda kultur etxeko haur liburutegian.

Ipuinekin gozatzea eta bide-batez haurrak Gabon egunetan liburutegira inguratzea du helburu *Gabonetan ere... haur liburutegia* leloa daraman ekimenak. Josu Egaña liburuzainak dioenez, egun hauetan, oporrekin batera, behera egiten du liburutegira inguratzen den haur kopuruak. Saio hauen bidez adierazi edo gogorarazi nahi diegu haur liburutegia zabalik dutela. Aurten lehen aldiz antolatu dute mota honetako ekimena garai honetan: Aurrez Halloween garaian zerbait egin izan da, baina inoiz ez Gabonetan. Saio hauek 5 urtetik gorako haurrentzat daude zuzenduak. Asteartean, arratsaldeko 5:30ean izango den saioak Esaldi bat, esaldi bi... kontu kontari du izena. Kontalariak hitzak edota irudiak aterako dituzte kutxa batetik eta haren arabera ipuin bat kontatuko dute. Arduradunek gonbitea luza-tzen diete hurrei poltsikoetan, txanoetan, galtzerdietan zerbait eramateko, gero kutxan sartu ahal izateko.

Saioak hilean behin

Urtean zehar hilero antolatu ohi da hurrei zuzendutako ipuin-kontaketa saioak Foronda kultur etxean. 20 eta 40 haur inguru azaltzen dira saio hauetara, argitzen du Egañak.

Hileroko saioak antolatzeko asmoa dagoela adierazi du liburuzainak. Urtean zehar beste kontaketa saio berezi gehiago antola-tzeko asmoa erakutsi dute.